

# Politikagintzan dagoen sumindura salatu du Confebaskek Ibarretxerekin elkartu ondoren


Herri Batasunaren «apustu demokratikoa» laudatu du Baltasar Erraztik

Asier Pz. de Karkamo / Gasteiz

Elkarrizketa sorta berriari ekin zion atzo Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak EAEko giza taldeekin, egungo prozesuaren inguruan iritziak trukatzeko asmoz. Atzo enpresariaren ordezkariarekin bildu zen. Gaur, berriz, ELA eta CCOO sindikatuetakordezkariak hartuko ditu Ibarretxek.

ENPRESARIAK itxaropentsu daude. Halaxe jakinarazi zion atzo Baltasar Erraztik Confebaskeko presidenteari Ibarretxe lehendakariari, honek egungo egoera politikoa aztertzeke eragile sozialekin burutuko duen bigarren elkarrizketa sortaren lehen saioaren ostean. Erraztik horrelako bilerak egitea garrantzitsua dela adierazi zuen, Euskal Herriak bizi duen egoeran «oso positiboak baitira denen arteko elkarrizketak».

Etorkezuna ilusioz ikusten dute EAEko enpresariak, azken hilabeteetan «hainbat arrazoi izan baitira Euskal Herriak bakea lortuko duela pentsatzeko». Arrazoi horien artean, HBk «politikaren aldeko» apustua azaltzea aipatu zuen Erraztik. Politika munduan, halere, «gizartean sumatzen ez den sumindura» dagoela esan zuen enpresari buruak, «lasaitasuna inoiz baino garrantzitsuagoa den honetan».



MIREN SAEZ

Juan Jose Ibarretxe, EAEko lehendakaria, Confebaskeko buruzagiekin atzo izandako bileran.

Kale erasoez ere mintzatu zen, gertaera «hondarrekoa baina garrantzitsua» dela iritziz. Erraztiren ustez, «bortizkeriak min handia egiten dio euskal gizarteari». Nolanahi ere, kale borroka «epe erdi edo luzean» amaituko dela uste du Confebaskeko presidenteari. Esan zuenez, «erraztegi eskatzen ditugu maiz berehalako emaitzak, baina gauzak lasaiago hartu behar dira». Izan ere, denborak bakearen alde jokatzeko du Baltasar Erraztiren ustez.

## Su-etena gorpuztuz doa

Bigarren aldiz hartu zituen atzo EAEko lehendakariak

enpresariaren ordezkariak, egungo prozesu politikoa aztertzeke asmoz urte hasieran gizarte taldeekin biltzeko erabakia hartu zuenetik. Aurrekoa otsailaren lehen astean izan zen eta azaroan hainbat enpresarik jasotako ETAre gutunak izan zituzten bildutakoek hizpide, besteak beste. Gai hori atzoko bileran ez zela mahai gainean izan adierazi zuen Baltasar Erraztik, «azarotik hona ez baita gutun gehiagorik agertu». Hori ere ETA talde armatuaren «su-etena gorpuzten» ari delako frogatzat jo zuen Confebaskeko buruak. Nolanahi ere, su-etena eta bakea sinonimo ez direla iritzi zion, «gaintitu

beharreko oztopo asko gertatzen baitira» enpresariaren elkarteko lehendakariaren iritziz.

## Bortizkeriarako arrazoi politiko eta sozialak daude Jose Mari Kortaren ustez

CONFEBASK-EKO idazkari Jose Mari Korta itxaropentsu azaldu zen, «bake prozesuaren alde ematen ari diren aurrerapausoak atzerapausoak baino nabarmenki garrantzitsuagoak direlako». Kortak «oso positibotzat» jo zuen Ibarretxe lehendakariaren izandako elkarrizketa. Bere ustez, solasaren bidez, lasaitasunez eta er demokratikoan egiten diren saialdi

guztiak txalagarriak dira. HBk azken hilabeteotan egindako apustua ere begi onez ikusi zuen, Confebaskeko beste lau ordezkariarekin batera bileraren ondoren egindako adierazpenetan.

Azken asteotako gertaerak ere ekarri zituen gogora, bake-rako bidean jarriko oztopoak direlakoan. Nolanahi ere, «espero zitekeen baino gutxiago» izan dira euskal politika az-

toratu duten azken gertakarien aurkako bortizkeri jazoerak, Kortak aditzera eman zuenez, eta «ilusioz» aztertu zuen hori. Kale erasoak «arazo politiko eta sozial batzuei emandako erantzuna» dira, Confebasken ordezkariaren ustez. Erantzun horien «bultzatzaile zirenek burua hotz izaten jakin dute, joko horretan erori gabe». «Jende horien liderrek oso mezu positiboak

eman dituzte egunero, eta itxaropenarako berria da hori», esan zuen.

Arazoak egon badaudela baina «horrelako prozesuetan ohikoa» dela adierazi zuen Kortak. Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoak «lasaitasuna behar du, bortizkeria ezin baita epe motzean amaitu». Irlandako kasua jarri zuen adibidetzat Jose Mari Korta enpresariaren ordezkariak.

Espainiako polizia baten autoa erretzen saiatu dira Iruñean

■ Erasoak ez zuen ia kalte materialik eragin

Agentziak / Iruñea

IRUÑEKO Polizia Zuzendaritza Nagusiko polizia baten autoa erretzen saiatu ziren atzo arratsaldean Iruñean, iturri ofizialek jakinarazi dutenez.

Gertaerak arratsalde hasieran izan ziren. Aurrekoa estalita zeramatzen bi lagunek Iruñeko Txantrea auzoko Alfonso Beorlegi kalean zegoen Nissan Micra autoari su eragiteko likidua bota eta su eman zioten. Nafarroako matrikuladun auto hori polizia espainol batena zela baieztatu zuten polizia iturriek.

Erasoak, nolahi ere, ez zuen kalte material handirik sortu, poliziaren senideek zer gertatzen ari zen ikusi, kalera jaitsi eta sua amatatzea lortu baitzuten.